

## AURREKONTU PARTE-HARTZAILEEN VIII. EDIZIOA NAFARROAKO GAZTERIAREN INSTITUTUA

### OINARRIAK

#### Aurkezpena

Nafarroako Gazteriaren Institutuak, Aurrekontu Parte-hartzaileen programaren bidez, gazteek berek proposatutako eta hautatutako jarduerak finantzatzen ditu. Aurrekontu parte-hartzaileak herritarrek parte hartzeko tresna bat dira, gazte-ekimeneko proiektuak egitea eta gazteak garapenaren fase guztietan (proposamena, hautaketa, gauzatzea eta ebaluazioa) inplikatzeko ahalbidetzen duena.

#### Nork aurkeztu dezake proposamen bat?

- Nafarroan erroldatutako 14 eta 30 urte bitarteko pertsona edo adin horretako gazteen talde orok.
- Gazte-elkarteek edo estatutuetan gazteentzako jarduerak egitea jasotzen duten bestelako elkarteek, Nafarroan erregistratuta badaude.

Pertsona batek, pertsona talde batek edo elkarte batek nahi adina proposamen aurkez dezake.

Proposamena aurkezten duen pertsona edo erakundea ezin izanen da ondoren kontratatu, proposamenaren jardueretako baten bat gauzatzeko. Nafarroako Gazteriaren Institutua arduratuko da behar diren kontratazioak egiteaz, betiere Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen arabera.

#### Aurrekontu Parte-hartzaileen faseak?

1. fasea: proposamenak aurkeztea.  
2024ko otsailaren 9tik martxoaren 3ra
2. fasea: Proiektuak baliozkotzea.

Aurkeztutako proiektuak baliozkotzea.

Bozketarako sartutako eta baztertutako proiektuen jakinarazpen

3. fasea: online bozketa.

Gazte Txartelaren titularren online bozketa 2024ko martxoaren 7tik 21era.

Aukeratutako proiektuak aldarrikatzea. 2024ko martxoaren 22a.

4. fasea: Proiektuak gauzatzea.

2024an zehar.

5. fasea: Ebaluazioa.

Memoria egitea. 2025eko urtarrila

Itzulera-akzioa.

## Zer proposamen mota aurkez daitezke?

- Gazteentzako hainbat esparrutako jardueren proposamenak; adibidez, esparru hauetakoak: parte-hartzea, prestakuntza, kultura, gazteen artea, osasuna, etxebizitza, kirola, enplegua, gazteen ekintzailtza, berdintasuna, inklusioa, belaunaldien arteko harremanak eta abar.
- Programa honetan aurretik finantzatu ez diren eta beste deialdi publiko espezifiko baten bidez diruz lagundu ezin diren proposamenak.
- Gazte guztien parte-hartzea onartzen duten proposamenak. Gazteen segmentu jakin bati zuzendutako proposamenak onartuko dira, edo, gazteen eremutik atera gabe, belaunaldien arteko ikuspegia dutenak.
- Proposamen guztiak 2024an gauzatu beharko dira, Nafarroan.
- Proposamenaren aurrekontua ezin izanen da 10.000 €-tik gorakoa izan.
- Ez da onartuko Nafarroako Gobernuaren zuzeneko eskumenekoak diren jardueren proposamenik, ezta inbertsioak dakartzanik ere, hala nola obrak, edo ondasun ez-suntsikorrek eskuratzea. Halaber, ez da onartuko osasunerako

kaltegarriak diren substantzien kontsumoa zuzenean edo zeharka dakarren proposamenik.

## Proposamenak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea: 2024ko otsailaren 9tik martxoaren 3ra.

Proposamenak esteka honetako eskabide orriaren bidez aurkeztuko dira: <https://www.juventudnavarra.es/eu/zure-proposamena-aurkeztu>

Proposamenik ez badago, edo aurkeztutako proposamenek ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte, Nafarroako Gazteriaren Institutuak bi aukera izanen ditu: proposamenak aurkezteko beste epe bat ireki, edo deialdia bete gabe utzi.

## **Proposamen irabazleak hautatzeko bozketa**

Horretarako egiten den balorazio teknikoaren arabera parte hartzeko baldintzak betetzen dituzten proposamenak bozketa prozesu batean sartuko dira. Bozketa horretan Nafarroako **Gazte Txartelaren titularrak** parte hartzen ahalko dute (14 eta 30 urte bitartekoak).

Bozketa Nafarroako Gazteriaren Institutuaren webgunean egingen da, 2024ko martxoaren 7etatik 21era bitartean.

Pertsona bakoitzak proposamen bakarra bozkatzen ahalko du.

Boto gehien lortzen dituzten proposamenak gauzatuak izateko hautatutako dira. Horretarako, lehenetsun bat ezarriko da, boto kopuru handienetik txikienera, programak dituen 30.000 euroak agortu arte.

## **Proiektuen Betearazpenaren Jarraipen Taldea**

Proposamen bat aurkezten duenak, proposamena hautatuz gero, konpromisoa hartu beharko du haren betearazpenaren jarraipenean parte hartzeko. Helburu horrekin, Proiektuen Betearazpenaren Jarraipen Talde bat sortuko da, honako hauek osatua:

- Hautatutako proposamena aurkeztu duten gazteak. Elkarrekin aurkeztutako proposamenen kasuan, jarraipen horretaz arduratzen direnek gazteak izan beharko dute.
- Nafarroako Gazteriaren Institutuko teknikariak.
- Proposamen irabazlearen gai espezifikoan adituak diren teknikariak, proiektuaren ezaugarriek hala gomendatzen badute.

Talde horrek eginkizun hauek izanen ditu:

- Proiektuaren garapenari jarraipena ematea. Horretarako, gutxienez hiru bilera egingen dira: bat, hasierakoa; beste bat, tartekoa; eta bestea, amaierakoa.
- Proiektua gauzatzeko bitartekoak hautatzea.
- Beharrezkoak diren kontratazioak edo materialen erosketa adostea, betiere Kontratu Publikoari buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean xedatutakoa betez.
- Proiektua gauzatzean beharbada egin beharko diren egokitzapenak adostea: epeak, aurrekontuak, eskakizun teknikoak, etab.
- Proiektuak ebaluatzeko irizpideak adostea.
- Prozesua bere osotasunean ebaluatzea.

Proiektuak gauzatzen amaitu ondoren, jarraipen taldeetako kide guztiei dei egingen zaie baterako ebaluazio bilera batean parte har dezaten. Bilera horretan ekarpenak eta hobekuntza-ekintzak aurkeztuko dira, hurrengo deialdian gehitzeko.